

Zorrotzaurrerako 5 hirigintza-proposamen utopiko



Maria Içeta *

Aldiri. 2013. IV. 16. 38-40. ISSN 1889-7185

Jasotze-data: 2013-08-31 / Onarpen-data: 2013-10-04

LABURPENA: Bilboko metropoliaren hainbat irudi, Zorrotzaurreko industria-eremua leheneratzeko proposamenen arabera, hiri-zatia antolatzeko arauak eta oinarriak definituz batzuek, eta besteek hiri-arkitektura eredutan oinarritutako hiri-proiektu bat garatuz.

GAKO-HITZAK: Bilboko metropolia, Zorrotzaurre hiri-zatia, Hiri-proiektua

ABSTRACT: The reader will find several images of metropolitan Bilbao, according to the renewal proposals of the industrial area of Zorrotzaurre; some define norms and conditions for the planning of this part of the city, while others develop an urban project based on models of urban architecture.

KEYWORDS: Metropolitan Bilbao, Zorrotzaurre part of the city, Urban project

Bilbo hiriaren garapena bereziki sustatu izan dute itsas merkataritzari lotutako jarduerak hasiera batean, eta ondoren, itsasadarrean kokatu ziren industriek. Baina, 80ko hamarkadako industria-krisialdiak bultzatu zuen hiriaren birmoldaketa: industria-hiri izatetik zerbitzu-hiri izatera. Orduan, Bilboko metropolia egituratzen duen itsasadarraren bi ertzak berrantolatzeke apustua egin zen, eta ardatz horren erdi-erdian dagoen Zorrotzaurre, nola ez, bere kokapen estrategikoagatik, giltzarri gertatu behar, bada!

Hori dela-eta, 1994. urtean Thyssen industria-taldeak egin zuen lehiaketarako deiak arrakasta handia izan zuen arkitektoen artean, gaia erakargarria suertatu baitzen: Zorrotzaurre penintsula andeatua, non portuko instalazio eta industria zaharkitua gailentzen ziren, berrantolatzea, eta eremu hura Bilboko metropoli-barrutian berrintegratzea. Lehiaketa hartara aurkeztu ziren 79 proposamenetatik, lerro hauetan aztertzeke begiz jo ditudanak sarituak izan ziren bostak dira.

Proposamenen azterketari heldu baino lehen, nabarmendu behar da lehiaketan Deustuko ubidea guztiz irekitzea aurreikusten zela, Zorrotzaurre erdi uhartea uharte bilakatzeko. Izan ere, egun oraindik ere penintsula dugun eremu hori 50eko hamarkadan hasitako lanak amaitu ez zirelako da hala. Deustuko ibarretik banantzeko egitasmoa 20ko hamarkadako planoetan jasota zegoen jada, 30 urte beranduago arte ideia hori errealtate bihurtzeko lanak hasi ez ziren arren.

Deustuko ubidea irekitzeak San Inazio erribera birdefinitzeko aukera ematen zuen, eta hautagai batzuk saiatu ziren San Inazio auzoaren eta, uretan behera, Zorrotzaurreko irla itxuratzen zuen eskuin besoaren ertzen arteko harremana estutzen; batzuek hutsuneen bidez, itsasadar-ertzeke pasealeku jarraitua proposatuz, eta besteek eraikitako bolumenen bidez. Proposamen interesgarrienetako batek, Alejandro Ríosena, erabiler mistoak izango zituzten zenbait eraikin mota aurreikusten zituen: ekipamenduak, hirugarren sektoreko erabilerak, bi ertzen artean osagarri izan litezkeen jarduerak, bertan hiri-bizitzak aukera bat izan zezan. Kevin Lynch hirigile eta idazleak zioen bezala: *ertz bat muga edo hesi bat baino zerbaitek gehiago izan daiteke,*

(1) Lynch, K. (1960): *The Image of the City*, Harvard-Mit Joint Center for Urban Studies.

ikuspen eta jarraitutasun-baldintza egokiak gertatzen badira, josturallero bat izan daiteke trukeerako, harreman-lerro irekia (1).

Horren harira, beste hautagai batek, Xabier Unzurrunzagaren taldeak, aurkako ertzaren alde egin zuen apustu, eta haien ekimena Zorrotzaurreko ezker besoaren ertza Zorrotza eta Olabeagarekin lotzean zetzan. Itsasadarraren ibilbide naturala lehortzearekin, Zorrotzaurre zabaltzea lortzen zuten, nola morfologikoki hala hiri-egitura mailan errotula-funtzioa bermatzeko adina entitate izango zuen hiri-zatia eraikiz. Lehortutako ubidearen sestra azpitik antolatuko ziren zerbitzuak, eta azpiegiturak, metroa barne; eta, eremutik harago luzatuko zen hiri-ardatz hori, lehenik, labe garaietako instalazioetaraino —Barakaldoko hiri-bilberaino—, eta aurrerago: Sestaora, Portugaletera, Santurtziraino iritsiko zen; Nerbioi haranetik barrena, Kobeta mendiaren hegalek eta itsasadarrak berak sortutako estugunetik zehar, mendiaren hegalean gainjarritako zilbor-hestearen antzera, Bilboko hiri-bilbea, itsasadarrean zehar, itsasoraino luzatuz. Hirien arteko sistema orokorrak eta ezkeraldeko hiri jarraituen hiri-bilbeak modu arrazionalerik egituratzea lortzen zuten, metropoliko bide-pasealekua bururatuz.

Deigarriak dira Juan Daniel eta Diego J. Fullaondok uhartea ezker ertzaren erremate gisa ideiatutako parkeen diseinuak, Bilboko hirigintza-historiaren erreferente oso formalak baitira: Silvestre Perez arkitektoak proposaturiko Bake portua (2) (1807. urtean onartua izan zen, baina ez zen gauzatu), eta bestea, Secundino Zuazok 1922an aurkeztu zuena, Erriipako kaia eta alde zaharra eraberritzeko (3) proposamena.

Ertz mugatu eta zehaztu horiek pentsatu zituzten proposamenei kontrajartzen zaie Dario Gazaporen taldeak aurkeztutakoa; azken horiek, hiri aldakorra dela sinetsita, hiri-zati horren egoera metamorfikoa islatzen saiatu ziren. Aditzera ematen zuten etengabe berregituratzen ari den errealtatea, non ertza zimurtzen eta luzatzen zen, baldintzei eta beharrei egokitu, elkarrekiko trukean diren molekulen antzera, bilakatzen ari den organismo baten antzera; morfologia irregularrak, transformazio-prozesuetatik, interakzioetatik sortuko balira bezala.

(2) Bilbo berriaren proiektua (1807): Abandoko elizatean Bizkaiko portua eraikitzea aurreikusten zen.

(3) Ustez, alde zaharreko higie-ne-baldintzak hobetzeko eta alde zahararen isolamendua apurtzeko proposatu zen barne-erreforma; hirigune zahararen bide-diseinu guztia egokitzea behartzen zuen. Haussmannek Parisen egin zuenaren antzera.



Leku-aldaketak Koka-lekuak. 1. saria.
Egileak: Dario Gazapo de Aguilera,
Concepción Lapayese eta
Javier García-Izquierdo
y Ruiz.

Halaber, ertzen mugagabetasuna agerian jartzen zuten, baita ere, Eduardo Arroyok eta Juan Calvok, eta metropoli-espazioa kolonizatzeko aukera aurkeztu zuten, hirietan garatzen diren hainbat erabilera metatuko zituzten moduluak erabiliz, irlaren luzeran aurreikusitako ardatzetik, beharren arabera, zintzilika zitezkeen kutxa flotagarriekin.

Badira, itsasadarraren memoria mantentzearren, balio historikodun bizitegi-erakinak eta ehun industrialaren zati bat errespetatzeko keinuak ere Dario Gazaporen taldearen zein Alejandro Riosen proposamenetan, biak itsasertzaren ezkerlatde horren irudi tradizionalari eutsi nahian.

Bestalde, hiri-zati horretan pertsonak, eraikinak, zerbitzuak nola kokatuko ziren zehazteko irizpideak kontuan hartuta, nagusiki bi ereduri jarraitu zitzaizela esango nuke: batetik, eremua berregituratzeko arkitekturaren edukian, gaitasunean oinarritu zirenak, hiri-proiektu bat garatuz; eta bestetik, behin betiko hiriak izango zuen forma zehaztu gabe, metropoli-estrategiaren gida-lerroak finkatzea helburu izan zutenak: hiri-zatia berrantolatzeke oinarri batzuk finkatuz, aldagai batzuk definituz, orientabideak zehaztuz. Esaterako, Dario Gazaporen taldeak hiri-elkarteen ikusmolde fraktala oinarri hartuta, elkarriketa-agiri bat izan zitekeena aurkeztu zuen, eremuaren etorkizunerako antolamenduaren hastapena baino izango ez zena: muga zehaztugabeak eta hazkunde modularreko patroietan oinarritutako diseinuak, populazio-fluxuen oszilazioetara egokituko zirenak. Beste batzuek, Juan Daniel eta Diego J. Fullaondok, analogiari bide ematen zioten, eta hiri-egitura bat proposatu arren, horretan oinarrituz beste bat eratzea posible zela iradokitzen zuten, zehazten ez den egitatezko kasu bati antzeko kasu batentzat emandako irizpidea aplikatuz.


Aurreko ideia abstraktuetatik aldenduz, hiri-zatia arkitektura-zehaztapenetan oinarrituz antolatzea proposatzen zuten bi adibide: batean, Alejandro Riosen proposamenean, erabileren antolaketa, hein handi batean, «bandetan» egiten zen. Banda horiek bat zetozen eraikinen forma eta okupazio edo asentamendu-modu zehatzak jasoko zituztenekin: 3. sektoreko erabilera, ibilgailuena, bizitegi-arena, parkearena, auzo zaharrena eta autobidearena. Bestean, Xabier Unzurrunzagaren taldearenean, hiri-zatiaren forma orokorraren eta eraikinen edukiaren arteko erlazioa are argiagoa zen, eraikinen tipologiak ere ebazten baitzituzten. Horren arabera, Bilboko zabalgunea berria 5 hiri-elementuren segidak osatuko zuen: plaza eta administrazio-erakina, bizitegirako gunek bi, parkea, eta plaza eta kirol-portua. Bizitegi-erabilera nagusiko lehenengo zabalgunea 100 x 100 metroko bost solairuko bost etxadik osatuko zuten, eta bigarrena, San Inazio bizitegi-auzoaren aurrean garatzen zena, dentsitate altuko lorategi-hiri baten irudiarekin, 100 x 100 metroko eta lau solairuko hamasei etxadiz osatuko zen, *siedlungen* (4) tratamenduarekin, Gasteizko Lakua eremurako Moneok eta Solá-Moralesek 1976. urtean aurkeztu zuten planteamenduari buruzko erreferentzia morfologiko eta tipologiko argiarekin.

(4) Familia bakarreko dentsitate baxuko auzoak, baratze eta lorategi zabalekin hornitua. Lehen Mundu Gerra amaiztean inperio austro-hungariarra desagin eta Austriako errepublika aldarrikatu zen. Gubernu sozialdemokrataren lehentasuna etxebizitzaren arazo larria ebaztea izan zen, eta horretarako 1923-1933 etxebizitza-plana garatu zuten. Aukeraturako ereduak familia anitzeko etxebizitza sozial publikoko eraikuntza multzoak izan ziren, Hofe deiturikoak, eta Siedlungen-ak.




Noeren axioma. 3. saria.
Egileak: Eduardo Arroyo eta Juan Calvo.


- 1. PASADIZO BARRIOA
- 2. PLAZA DE SAN JUAN
- 3. PASADIZO BARRIOA
- 4. PASADIZO BARRIOA
- 5. PASADIZO BARRIOA
- 6. PASADIZO BARRIOA
- 7. PASADIZO BARRIOA
- 8. PASADIZO BARRIOA
- 9. PASADIZO BARRIOA
- 10. PASADIZO BARRIOA
- 11. PASADIZO BARRIOA
- 12. PASADIZO BARRIOA
- 13. PASADIZO BARRIOA
- 14. PASADIZO BARRIOA
- 15. PASADIZO BARRIOA
- 16. PASADIZO BARRIOA
- 17. PASADIZO BARRIOA
- 18. PASADIZO BARRIOA
- 19. PASADIZO BARRIOA
- 20. PASADIZO BARRIOA
- 21. PASADIZO BARRIOA
- 22. PASADIZO BARRIOA
- 23. PASADIZO BARRIOA
- 24. PASADIZO BARRIOA
- 25. PASADIZO BARRIOA
- 26. PASADIZO BARRIOA
- 27. PASADIZO BARRIOA
- 28. PASADIZO BARRIOA
- 29. PASADIZO BARRIOA
- 30. PASADIZO BARRIOA
- 31. PASADIZO BARRIOA
- 32. PASADIZO BARRIOA
- 33. PASADIZO BARRIOA
- 34. PASADIZO BARRIOA
- 35. PASADIZO BARRIOA
- 36. PASADIZO BARRIOA
- 37. PASADIZO BARRIOA
- 38. PASADIZO BARRIOA
- 39. PASADIZO BARRIOA
- 40. PASADIZO BARRIOA



Diskurtso unibertsal bat. 3. saria.
Egileak: Juan Daniel Fullaondo eta Diego J. Fullaondo



Bizkarrezurra. 3. saria.
Xabier Unzurrunzaga, Elena Aramburu eta José Mari Alkorta



Ardatz egituratzailea. 2. saria.
Egilea: Alejandro Ríos Román

Amaitzearen, azken proposamen horren beste lortpen handi bat adierazi nahi nuke: Zorrotzaurreren integrazioa Bilboko metropolian, bi hiri-elementu aintzat hartuta; gorago aztertua izan den metropoliko bide-pasealekua, eta bizitegi-guneen artean kokatzen zuten parkea, zeina hiri-eskalako elementu bat zen, itsasadarraren eskuineko ertzean dagoen Sarriko parkearen aurrez aurre geratzen zena. Bi parkeak lotzeko, itsasadarren trazatu berriaren gainean zubi bat aurreikusten zuten. Bestalde, Kobeta mendia parke publiko bihurtzeko ideia berreskuratu zuten, Rikardo Bastida arkitektoak 1923. urtean planteatu zuena, eta Zorrotzaurreko parketik Kobetara iristeko igogailu publiko bat proiektatzen zuten, zubi berriaren ardatzean, bat etorriko litzatekeena tokirako aurreikusita zegoen metroko geltokiarekin. Hiru parkeak egituratuz Bilbo ingurunerako hiri eta eskualde mailako espazio berdeen sistema orokor garrantzitsu bat osatzea lortzen zuten, hiri-eskalako zuzkidura handi baten metropoli-plangintzaren adierazgarri.

Bibliografia

Solà-Morales, M (2008): *Hiri-bazkunde motak*, EHU, Bilbo
 Erquicia Olaciregui, J M (2004): "Del planeamiento urbanístico a la ordenación del territorio: la necesidad de un cambio de escala: el caso de la Comunidad Autónoma del País Vasco", *Ciudad y Territorio. Estudios Territoriales*, 139, Madrid
 Lynch, K (1960): *The Image of the City*, Cambridge MIT, EEBB
 Cenicacelaya J, Román A, Saloña I (2001): *Bilbo, hiri ikuspegia. 1300-2000*, Kliczkowski Publisher, Bilbo
 Basurto, N, Leira, E, Quero, D (1991): *El problema urbanístico de Bilbao: conferencia 1923*, EHAE0 Bizkaia, Bilbo
 Lazkano, J M (1997): "El arranque del espacio metropolitano en Zorrozaurre", *Bidebarrieta*, 23, Bilbo, 25-27

© Maria Icela arkitektoa. Pasaiaiko Udaleko Hirigintza Saileko teknikaria eta EHUko irakasle Unibertsitate Eskola Politeknikoan da.

